



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko ekainaren 22a

90. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Hezkuntza Departamentuaren egituran eta goikargudunen artean egingen diren aldaketei eta aldaketa horiek egiteko arrazoiei buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (2. or.).
- Galdera, Langabeziaren aurkako talka-planari buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (2. or.).
- Galdera, farmazia-koordainketari buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (3. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Arartekoaren 2015eko kontu orokorrari buruzko aholkularitza-txostena, Kontuen Ganberak egina (4. or.).
- Aldaketa, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko Erregelamenduarena (14. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Hezkuntza Departamentuaren egituran eta goikargudunen artean eginen diren aldaketei eta aldaketa horiek egiteko arrazoiei buruzkoa.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Legebiltzarraren Osoko Bilkuran izapidetuko dela Alberto Catalán jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuaren egituran eta goikargudunen artean eginen diren alda-

ketei eta aldaketa horiek egiteko arrazoiei buruzkoa, zeina 2016ko ekainaren 17ko 88. NPAOn argitaratu baitzen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Langabeziaren aurkako talka-planari buruzkoa.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Legebiltzarraren Osoko Bilkuran izapidetuko dela Ainhoa Unzu andreak Langabeziaren aurkako talka-planari buruz aurkeztutako

galdera, zeina 2016ko ekainaren 10eko 84. NPAOn argitaratu baitzen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, farmazia-koordainketari buruzkoa.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Legebiltzarraren Osoko Bilkuran izapidetuko dela María Victoria Chivite andreak farmazia-koordainketari buruz aurkeztutako galde-

ra, zeina 2016ko ekainaren 10eko 84. NPAOn argitaratu baitzen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Arartekoaren 2015eko kontu orokorrari buruzko aholkularitzatxostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Arartekoaren 2015eko kontu orokorrari buruzko aholkularitza-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 5. artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 204. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea Arartekoaren 2015eko kontu orokorrari buruzko aholkularitza-txostenaren edukia-
ren jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-
an argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Arartekoaren 2015eko kontu orokorrari buruzko aholkularitza- txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (5. or.).
- II. Nafarroako Arartekoaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuei buruzko iritzia (6. or.).
 - II.1. Auditoria finantzarioko iritzia (6. or.).
 - II.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iri-
tzia (6. or.).
- Eranskina. Finantzen egoera-orriak (9. or.).

I. SARRERA

Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babestutako eskubide eta askatasunak defenditzeko eta hobeki babesteko. Haren eginkizun nagusia da herritarrak babestea administrazio publikoaren balizko abusu eta zabarkerien aurrean.

Urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa Erreformatzekoak, 18 ter artikuluan estatutu-mailako kategoriara jasotzen du Nafarroako Arartekoa.

Nafarroako Parlamentuak hautatu eta izendatzen du, eta urtero haren aurrean erantzuten du eginda-koarengatik. Egun kargu hori betetzen duen pertsona 2007ko martxoaren 22an izendatua izan zen, sei urterako, eta jardunean jarraitzen du.

Eginkizun dituenak gauzatzeko behar dituen aholkulariak eta konfiantzazko langileak askatasunez izendatzen eta kentzen ditu kargutik.

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2016rako jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Arartekoaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua, ondare garbiaren aldaketaren egoera-orria, eskudiruaren fluxuaren egoera-orria eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazki ekonomikoa.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasunaren betetzei buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Arartekoak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Nafarroako Arartekoaren Bulegoari 2015ean aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea, martxoaren 7ko 3/2005 Foru Legeak eta otsailaren 21eko 3/2008 Foru Legeak aldatua.
- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2005eko azaroaren 21eko Erabakiaz onetsia.
- Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, apirilaren 13ko EHA/1037/2010 Aginduaren bidez onetsia.

Arartekoa Nafarroako Parlamentuak duen araubide beraren mende dago kontabilitaterako, kontuhartzaitzarako, gastuak baimentzeko, kontrataziorako eta ondasun eta eskubideak eskuratzeko; eta kontabilitate publikoaren araubidearen pean dago orobat.

Arartekoaren aurrekontu-proiektua Nafarroako aurrekontu orokorretan sartzen da, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren parte dira.

2010ean Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra onetsi ondoren, Nafarroako Arartekoak kontabilitate plan horren arabera aurkeztu zituen bere kontuak 2015. urtean.

Horrela, aurrekontuaren likidazioak, egoera-balantzeak, ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontuak eta oroitidazkiak osatzen dute kontu orokorra, bai eta ondare garbiaren aldaketen egoera-orriak eta esku-diruen fluxuarenak ere.

2015eko ekitaldiko datu nabarmen gisa, honakoak aipa daitezke:

- Nafarroako aurrekontuak luzatu izanak –eta, hortaz, Arartekoarenak– eragozten du doitzea hasierako aurrekontuak Arartekoaren aurreikuspenetara, zeinak txikiagoak baitira.
- Aitortutako betebeharrak 635.387 euro egin dute, eta betetze-maila % 77,3koa izan da. 2014ko ekitaldiarekin alderatuz gero, betebeharrak horiek ehuneko 0,83 murriztu dira.

- Gastua, kapituluaren arabera, honela banatzen da: langile-gastuari % 68,4 dagokio, (2014an, ehuneko 67 izan zen), eta ondasun arrunt eta zerbitzuei, berriz, ehuneko 23 (2014an, ehuneko 26 izan zen).
- Aitortutako diru-sarrerek 760.580 euro egin dute, eta betetze-maila % 92,5ekoa izan da (2014an, ehuneko 94koa izan zen). Jasotako diru-sarrera horietatik gehienak Nafarroako Gobernuaren transferentzietatik heldu dira. Zehazki, Nafarroako Gobernuarengandik jasotako transferentziek 758.726 euro egiten dute; horietatik, 726.526 funtzionamendu-gastuak finantzatzera bideratutako transferentzia arruntak dira, eta 32.200 euro, berriz, inbertsio-gastuetara bideratutako transferentziak.
- Arartekoaren bulegoaren gastuak jaitsi egin dira azken urteotan; halatan, 2009an 1.032.260 eurokoak izatetik 2015ean 635.388 eurokoak izatera igaro dira; alegia, ehuneko 38 jaitsi dira. Plantilla 2010ean 12 lanpostukoa izatetik 2015ean 8koa izatera igaro da; horietatik, abenduaren 31n, 7 lanpostu zeuden beteta; hau da, ehuneko 33 murriztu da.
- 125.192 euro itzuliko zaizkio Nafarroako Gobernuaren Diruzaintzari, ekitaldiko gerakina baitira.
- Hurrengo taulan ikus daiteke zein zen Arartekoaren bulegoko 2015erako plantilla organikoa eta abenduaren 31ko langileen zerrenda:

Langile mota	Plantilla	Langileak, abenduaren 31n
Behin-behinekoak	5	4
Funtzionarioak	3	2
Administrazio-kontratupekoak	-	1
Guztira	8	7

- Nafarroako Arartekoaren Bulegoaren oroitidazkiaren arabera, honako hauek dira 2015ean zehar kudeatutako kexei buruzko datuak:

a) 1.546 kexa aurkeztu ziren guztira.

b) 972 kexa-espeditente kudeatu ziren guztira.

2015eko abenduaren 31n, 813 kexa-espeditente zeuden ebatzita, hau da, kudeatutako guztien ehuneko 83,6; horrenbestez, data horretan ebatzeko zeuden kexa-espeditenteak 159 ziren.

Txostenak bi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenak gure iritzi finantzarioa eta legezketasunaren betetzeari buruzkoa azaltzen du, Arartekoaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuei dagokionez. Txostenari eranskin bat gehitu diogu, urteko kontuen laburpen batekin.

Azterketa lana 2016ko apirilean egin du auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan du.

Jarduketa honen emaitzak Arartekoari azaldu zitzaizkion, kasua bada egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Epea iraganda, txostenari ez zaio alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Arartekoaren langileei, lan hau egiteko eman diguten lankidetzarengatik.

II. NAFARROAKO ARARTEKOAREN 2015EKO EKITALDIKO URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Nafarroako Arartekoaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen eranskinean.

NAFARROAKO ARARTEKOAREN ERANTZUKIZUNA

Nafarroako Arartekoa da urteko kontuak egiteko ardura duena. Urteko kontu horiek, Arartekoaren kontu-hartzaileak aurrez egindakoak, aurkeztu eginen ditu eta gero Nafarroako Parlamentuari igorriko dizkio, halako moduz non irudi zehatza azal dezaten Arartekoaren ondareari, finantza-egoerari, emaitzei eta aurrekontu-betetzeari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoko eta barne kontroleko arau-esparruari jarraituz, horren bidez prestatu eta aurkeztu ahal izateko iruzur edo akatsen ondoriozko oker materialik ez duten urteko kontu batzuk.

Urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea urteko kontuei buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta lanaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: urteko kontuetan arrazoizko gurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera-koak izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera-koak dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak urteko kontuak egin ditzan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita– inguruabarren arabera-ko auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Azterketa honek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantza-auditoriari eta legezkotasuna betetzeari buruzko finantza- eta fiskalizazio-auditoriaren iritzi aldatu gabeari eusteko.

II.1. AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritziz, urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute, Nafarroako Arartekoaren ondareari eta finantza-egoerari dagokienez 2015eko abenduaren 31n, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

II.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritiz, Nafarroako Arartekoaren 2015eko ekitaldiari buruzko urteko kontuetan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko ekainaren 10ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

ERANSKINAK**FINANTZEN EGOERA-ORRIAK****1. 2015EKO GASTUEN ETA DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA**

Gastuak, kapituluz kapitulu

Kapitulua	Hasierako aurreikuspe- nak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspe- nak	Betebehar aitortuak	Betetzea- ren ehu- nekoa
1. Langile-gastuak	503.559	0	503.559	434.815	86
2. Ondasun arruntetako eta zerbi- tzuetoako gastuak	244.600	0	244.600	147.558	60
4. Transferentzia arruntak	34.100	0	34.100	31.577	93
6. Inbertsio errealak	39.500	0	39.500	21.437	54
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	
8. Finantza-aktiboak	200	0	200	0	0
9. Finantza-pasiboak	100	0	100	0	0
Guztira	822.059	0	822.059	635.387	77

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

Kapitulua	Hasierako aurreikuspe- nak	Aldaketak	Hasierako aurreikuspe- nak	Eskubide aitortuak	Betetzea- ren ehunekoa
3. Tasak eta bestelako diru- sarrerak	100	0	100	1.658	1658
4. Transferentzia arruntak	781.150	0	781.150	726.526	93
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	1.009	0	1.009	196	19
7. Kapital-transferentziak	39.526	0	39.526	32.200	81
8. Finantza-aktiboak	174	0	174	0	0
9. Finantza-pasiboak	100	0	100	0	0
Guztira	822.059	0	822.059	760.580	93

Diru-sarrerak, guztira	760.580
Gastuak, guztira	-635.387
Aurrekontuko superabita	125.192
Foru Ogasunari itzuli beharrekoa, guztira	125.192

2. 2015EKO AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptuak	2015			2014		
	Eskubide aitortuak garbiak	Betebehar aitortuak garbiak	Aurrekontuaren emaitza	Eskubide aitortuak garbiak	Betebehar aitortuak garbiak	Aurrekontu-emaitza
a. Eragiketa arruntak	728.380	613.951	114.429	742.636	631.931	110.705
b. Kapital-eragiketak	32.200	21.437	10.763	32.200	8.757	23.443
c. Merkataritza-eragiketak	0	0	0	0	0	0
1 Eragiketa ez-finantzarioak, guztira (a+b+c)	760.580	635.388	125.192	774.836	640.688	134.148
d. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0
e. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0
2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e)	0	0	0	0	0	0
I. Aurrekontu-emaitza exekutatua (I=1+2)	760.580	635.388	125.192	774.836	640.688	134.148
Doikuntzak						
3. Gastaturiko kredituak, atxiki gabeko diruzaintza gerakinarekin finantzaturakoak						
4. Ekitaldiko finantzaketa desbideratze negatiboak						
5. Ekitaldiko finantzaketa desbideratze positiboak						
II. Doikuntzak, guztira (II=3+4-5)			0			0
Aurrekontu-emaitza doitua (I+II)			125.192			134.148

3. DIRUZAINZAKO GERAKINA 2015EKO ABENDUAREN 31N.

Osagaiak	2015eko ekitaldia	2014ko ekitaldia
1. (+) Funts likidoak	159.617	175.807
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	0	0
(+) ekitaldiko aurrekontutik	0	0
(+) Aurrekontu itxietatik	0	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	0	0
(+) Merkataritzako eragiketetatik	0	0
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	159.617	175.807
(+) ekitaldiko aurrekontutik	3.158	14.733
(+) Aurrekontu itxietatik	0	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	156.459	161.074
(+) Merkataritzako eragiketetatik	0	0
4. (+) Aplikatzeko dauden kontu-sailak	0	0
(+) Eginiko kobrantzak, behin betikoz aplikatu gabeak	0	0
(+) Eginiko ordainketak, behin betikoz aplikatu gabeak	0	0
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2-3+4)	0	0
II. Gehiegizko finantzaketa atxikia	0	0
III. Kobratzeko zailak diren saldoak	0	0
IV. Atxiki gabeko diruzaintza gerakina= (I-II-III)	0	0

4. 2015EKO ABENDUAREN 31KO EGOERA-BALANTZEA

Aktiboa	2015	2014	Ondare garbia eta pasiboa	2015	2014
A) Aktibo ez-korrontea	324.530	371.532	A) Ondare garbia	324.530	371.532
I. Ibilgetu ukiezina	52.559	52.916	I. Ekarrirako ondarea	0	0
3. Aplikazio informatikoak	52.559	52.916	II. Sortutako ondarea	324.530	371.532
II. Ibilgetu materiala	271.971	318.616	1. Aurreko ekitaldietako emaitzak	324.530	371.532
2. Eraikinak	119.667	123.327	Ondarea	329.992	376.994
4 Ondare historikoko ondasunak	41.509	41.509	Lagatako ondarea	-5.462	-5.462
5. Bestelako ibilgetu materiala	110.795	153.780			
Makinak, instalazioak eta tresnak	68.502	103.706			
Altzariak eta tresneria	7.266	10.626			
Informazio-prozesuetako ekipoak	12.854	18.487			
Bestelako ibilgetu materiala	22.173	20.961			
B) Aktibo arrunta	159.617	175.807	C) Pasibo korrontea	159.617	175.807
III. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	0	0	IV. Hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	159.617	175.807
2. Kobratzeko dauden beste kontu batzuk	0	0	1. Kudeaketa-eragiketengatiko hartzekodunak	3.158	14.733
3. Administrazio publikoak	0	0	3. Administrazio publikoak	156.459	161.074
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak	0	0	Ogasun Publikoa, PFEZaren hartzekodun	21.804	19.068
2. Kredituak eta zorra adierazten duten beste balio batzuk	0	0	Ogasun Publikoa, eskubide pasiboaren hartzekodun	2.131	550
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	159.617	175.807	Ogasun Publikoa hartzekodun, kreditu-itzulketaren dela eta	125.192	134.149
2. Diruzaintza	159.617	175.807	Gizarte Segurantzaren hartzekodun	7.332	7.307
Kutxa	382	634			
Bankuak eta kreditu-erakundeak	159.235	175.173			
Aktiboa, guztira	484.147	547.339	Ondare garbia eta pasiboa, guztira	484.147	547.339

5. 2015EKO EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

	2015	2014
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	758.726	767.900
a) Ekitaldikoak	758.726	767.900
a.2) Transferentziak	758.726	767.900
Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	32.200	32.200
Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak	726.526	735.700
7. Ohiko kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	0	6.541
A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak, guztira (1+2+3+4+5+6+7)	758.726	774.441
8. Langile-gastuak	-434.815	-431.778
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	-361.235	-358.330
Arartekoaren soldatak eta lansariak	-66.861	-64.543
Aldi baterako langileen soldatak eta lansariak	-193.593	-194.397
Funtzionarioen soldatak eta lansariak	-72.299	-71.074
Kontratupeko langileen soldatak eta lansariak	-28.482	-28.316
b) Gizarte-zamak	-73.580	-73.448
Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantza	-73.580	-73.448
9. Egindako transferentziak eta emandako diru-laguntzak	-31.577	-33.927
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	-147.557	-166.226
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	-147.557	-166.226
12. Ibilgetuaren amortizazioa	-68.302	-66.931
B). Kudeaketa arrunteko gastuak, guztira (8+9+10+11+12)	-682.252	-698.862
I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B)	76.473	75.580
13. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta salgai dauden aktiboaren eta balio-galera besterentzearen emaitzak	-137	-137
a) Balio-galera	0	0
b). Bajak eta besterentzeak	-137	-137
14. Arruntak ez diren beste kontu-sail batzuk	1.658	0
a) Diru-sarrerak	1.658	0
II. ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZA (I+13+14)	77.994	75.443
15. Diru-sarrera finantzarioak	196	395
b). Balio negoziagarri batzuen eta aktibo ibilgetuko kredituenak	196	395
b.2) Bestelakoak	196	395
III. Finantza-eragiketen emaitza (15+16+17+18+19+20)	196	395
IV. EKITALDIKO EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (II+III)	78.190	75.838

Aldaketa, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko Erregelamenduarena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu du, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2016ko apirilaren 11n hartutako erabakiaren bidez ebatzi zen negoziaketara eramatea Zerbitzu Orokorretako buruak egindako proposamena, zeinaren bidez kentzen baita Mahaiak 2015eko otsailaren 4an hartutako Erabakiaren xedapen iragankor bakarra, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 17.2 artikulua garatzeko Erregelamendua onesten duen 1994ko ekainaren 21eko Erabakia aldatu zuena, Legebiltzarreko langileen arteko desberdintasunak ezartzen zirelako.

Negoiazio-mahaia eratuta, Langileen Batzordeak bere adostasuna adierazi zuen aipatu xedapen iragankorra kentzea zela-eta, eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko Erregelamendua aldatzeko proposamen hauek aurkeztu zituen:

1. Aldaketa 2.1 artikuluan, hamabost egunera murrizteko, bi hilabetekoa izan ordez, lanpostu bat prestakuntzan dagoen langile baten bidez bete ahal izateko aurreikusten den aldi baterako kanpoaldia.

2. Aldaketa 3.2 artikuluan, atsedenaldiaren derrigorrezkotasuna malgutzeko; haletan, lanpostu bat aldi baterako bete behar denean prestakuntza-zerrendetako langile guztiak aipatu atsedenaldi egoeran badaude, ahalbidetuko da lanpostua prestakuntzan dauden langileen bidez betetzea, lehentasuna emanik atsedenaldia amaitzetik gertuen dagoen pertsonari.

Langileen Batzordeak aurkeztutako proposamenak bidezkotzat joz, eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren lehen xedapen gehigarriarekin bat, ERABAKI DA:

Lehen. Onestea Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko Erregelamendua alda dadin, honela:

1. Erregelamendu horretako 2.1. artikulua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

"2. artikulua. 1. Hamabost egun edo denbora gehiagoko iraupen aurreikusia duen aldi baterako kontratazioa egin aurretik, Nafarroako Parlamentuak zilegi izanen du bete nahi dituen lanpostuetan lan egiteko eskaintza egitea bertako funtzionarioei, prestakuntza lor dezaten, baldin eta ezartzen diren titulazioa eta baldintzak betetzen badituzte; funtzionario horiek zerbitzu berezietako egoeran deklaratu dira. Betiere Erregelamendu honetan ezarritako prozeduraren eta aurreikusitako kasuen arabera jokatu da."

2. Aipatu Erregelamenduaren 3. artikuluko 2. idatz-zatiari honako lerrokada hau gehitzen zaio:

"Prestakuntzako zerrendetako langile guztiak atsedenaldira badaude, salbuespenez zilegi izanen da, zerbitzuaren beharrei erantzuteko, lanpostu bat aldi baterako betetzea prestakuntzan dagoen langile batekin; lehentasuna emanen zaio atsedenaldira amaitzetik gertuen dagoen pertsonari, zeinak atsedenaldira erabat bete beharko baitu prestakuntzako zerbitzu-ematea bukatu eta gero."

3. Kendu egiten da Mahaiak 2015eko otsailaren 4an hartutako Erabakiak, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 17.2 artikulua garatzeko Erregelamendua onesten duen 1994ko ekainaren 21eko Erabakia aldatzekoak, daukan xedapen iragankor bakarra.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

